

BILBOKO UDALAK ARKITEKTURAZKO OZTOPOAK KENTZEKO ETA BIZITEGI ERAIKINETAN IGOGAILUAK JARTZEKO DIRULAGUNTZETARAKO DEIALDIA AURKEZTU DU

- Deialdi honetan, aurtan, 600.000 euro izendatu dira, bizitegiarako eraikinetan igogailuak jartzeko eta arkitekturazko oztopoak kentzeko, eta kanpoaldeko eremutan ere, jabetza pribatukoak direnean, hirigintzazko oztopoak kentzeko.
- Beste alde batetik, 75.000 euro emango dira etxebizitza-eraikinetako egiturazko elementuak konpontzeko lanak egiteko.
- Gertatu liteke zenbateko horiek gehitzea, beharrezkoa izanez gero, aurkezten diren eskabideen arabera.
- Aurtengo deialdian, badira berrikuntzak, eta dirulaguntzetan emango diren zenbatekoak ere gehitu dira.
- Iaz, Bilboko Udalak, Obretako, Hiri Plangintzako eta Proiektu Estrategikoetako Sailaren bidez, 93 egikune lagundu zituen diruz Uri osoan, guztira 590.888,09 euro emanez, aurreko urtean baino % 6,76 gehiago. Jarduketa horien onuradunak 1.882 etxebizitza izan ziren.
- Beste alde batetik, SURBISA udal sozietatearen ardurakoa da gune hauetako hiri-birgaikuntza: Zazpi Kaleak, Bilbo Zaharra, Zorrotzaurre, Trenbideko Langileen auzoa, Olabeaga, Gurutze auzoa, Irala –gune endekatuak eta Irala historikoa– eta Zazpilanda. SURBISAK, iaz, arkitekturazko oztopoak kentzeko 25 jardun lagundu zituen diruz, guztira 250.000 euro emanez.
- Guztira, iaz, udalerrian, 118 egikune gauzatu ziren bizitegi-eraikinen irisgarritasunerako, eta 840.888,09 euroko zenbatekoa baliatu zen haietan, eta 2.099 bizitegiri ekarri zien onura.

(Bilbo, 2022ko martxoaren 14a).- Bilboko Udalak, Obretako, Hiri Plangintzako eta Proiektu Estrategikoetako Sailaren bidez, aurtan ere deialdi bat egin du 2022an etxebizitza-eraikinetan arkitekturazko oztopoak kentzeko dirulaguntzetarako. Laguntza hori bizitegi-eraikinetako irisgarritasuna hobetzeko da, eta, aurtan, badakartza berrikuntza batzuk diruz lagun daitezkeen zenbatekoei dagokienez.

Programa horretan, aurreikuspenen arabera, 600.000 euro banatuko dira, etxebizitza-eraikinetan arkitektura-oztopoak kentzeko igogailuak eta irisgarritasuna hobetzen dituzten beste elementu batzuk jartzeko. Beste alde batetik, 75.000 euro emango dira etxebizitza-eraikinetako egiturazko elementuak konpontzeko lanak egiteko.

Gertatu liteke zenbateko horiek gehitzea, beharrezkoa izanez gero, ekitaldian zehar aurkezten diren eskabideen arabera.

Aurreko urteetan bezala, deialdi honen xedea da **lan hauen zati bat finantzatzea: bizitegietarako eraikinen barrualdeko elementu erkideetan dauden arkitektura-oztopoak** eta atarian bertan zuzenean sartzeko dauden kanpoko oztopoak kentzeko lanak (mailak edo eskailera-mailak, esaterako) eta, halakorik ez dagoenean, igogailua jartzeko lanak.

Era berean, deialdiaren helburua izango da etxebizitza-eraikinen inguruetan lehendik dauden titularitate pribatuko **kanpoko urbanizazioak** —erabilera publiko zein pribatukoak— berritzeko obrak finantzatzeko dirulaguntzak ematea, baldin eta obra horiek hirigintza-oztopoak kentzea badakarte.

Bilboko Udalak eraikin partikularretan oztopo arkitektonikoak kentzeko hainbat laguntza-programa sustatu ditu 1998az geroztik, herritar guztiei etxebizitzetarako irisgarritasuna bermatzearen.

DIRULAGUNTZAK ESKURATZEKO BETEKIZUNAK, 2022AN

Orokorrean, arkitektura-oztopoak kentzeko dirulaguntzak jaso nahi dituzten etxebizitza-eraikinek **betekizun** hauek bete behar dituzte:

- Eraikinaren **erabilera nagusia bizitegia** izatea.
- Higiezinan **bizitegi-erabilerak ez direnak badaude**, erabilera horiek, **gehienez ere, eraikitako azaleraren % 50 izan ahalko** dira, beheko solairuak eta sotoak kenduta (horrelakorik egonez gero).
- Etxeak, gutxienez, hamar (10) urte edo gehiago izatea.
- Eraikinaren altuera osoa lau (**4**) **solairukoa izatea, gutxienez**, beheko solairua barne.
- **Eraikinen Azterketa Teknikoaren Txostena** edukitzea, 50 urte baino gehiagoko antzintasuna daukan eraikin bat bada; **igogailua jartzeko** bada, edozein izan daiteke eraikinaren antzintasuna.

Era berean, **Otxarkoaga auzoaren berezitasuna aintzat hartzen da**, hango biztanleen ezaugarri sozioekonomikoengatik eta obren **kostu** handiagoarengatik; izan ere, gehienbat, eraikinen kanpoaldean jartzen dira igogailuak, eta, hala, **obraren egiazko kostuaren % 20ko diru-laguntasunari eusten zaio, gehienezko muga 20.000 euro izanik** – orain arte, gehienezko muga 16.000 euro zen—.

SURBISAren ardurapeko jardun-eremuak (Zazpi Kaleak, Bilbo Zaharra, Zorrotzaurre, Trenbideko Langileen auzoa, Olabeaga, Gurutze auzoa, Zazpilanda, Iralabarri eta Irala historikoa) **ez dira diru-laguntza hauetarako deialdian sartzten, diru-laguntzen sistema propioa dutelako**. Ez da dirulaguntzarik emango familia bakarreko edo familia birentzako etxeetarako, diren etxe bakanak edo elkarri atxikiak.

Diru-laguntza hauek jaso gura dituzten jabeek edota ugazaba-erkidegoek **2022ko azaroaren 14a baino lehen** aurkeztu ahal dituzte eskariak. Deialdiaren barruan sartzten dira oraindik ebatzi gabe dauden eskari lehenago aurkeztuak.

Udalak ematen dituen laguntzez den bezainbatean, **kontuan** hartu behar da:

Obraren **benetako kostuaren % 10 da** zenbatekoa:

- Igogailua jartzeko: 20.000 euro gehienez, kaletik etxebizitzetara arte mailarik gabeko ibilbide bat lortzen bada –orain arte, muga hori 16.000 euro zen–.
- Igogailuaren ibilbidea handitzeko, 8.400 euro gehienez (lehen, 7.000 euro).
- Plataforma jasotzaileak, atarietarako arrapalak eta abar jartzeko: gehienez 4.200 euro (lehen, 3.500 euro).
- Zenbait atari hartuko dituen igogailua jartzeko aurreproiektua idazteko: gehienez 1.800 euro (lehen, 1.500 euro).

Lehendik dauden titularitate pribatuko kanpoaldeko urbanizazioak izanez gero:

- Igogailua jartzeko: Kostuaren % 10, eta gehienez ere 12.000 euro (lehen, 10.000 euro).
- Oztopoak kentzeko beste esku-hartze batzuk: Kostuaren % 20, eta gehienez ere 6.000 euro (lehen, 5.000 euro).

Dirulaguntza horiek **bateragarriak dira Eusko Jaurlaritzak eta beste administrazio edo entitate batzuek ematen dituzten dirulaguntzekin.**

2021ean ARKITEKTURAZKO OZTOPOAK KENTZEKO EMANDAKO DIRULAGUNTZEN BALANTZEA

Bilboko Udaleko Obretako, Hiri Plangintzako eta Proiektu Estrategikoetako Sailak, 2021ean, **93 egikune** lagundu zituen diruz, guztira, eta **590.888,09 euro (2020an baino % 6,76 gehiago)** eman, guztira. Nabarmentzekoa da eskatutako dirulaguntza guztiak eman zirela, araudia betetzen zuten guztiak.

93 egikune horietatik:

- 19 jarduketa, igogailua jartzeko. Horietan, erabateko irisgarritasuna lortu zen.
- 7, igogailua jartzeko.
- 1, urbanizazioak berritzeko.
- 1, Otxarkoaga auzoan, igogailua jartzeko eta obra-aurreproiektuak idazteko.
- 28, igogailuaren ibiltartea luzatzeko.
- Eta beste 37, irisgarritasunarekin zerikusia duten jardunetarako (eskailera-igogailuak, arrapalak...).

Jarduketa horien onuradunak 1.882 etxebizitza izan ziren. Horietatik, % 29,03, igogailurik ez zuten eraikinetan igogailuak jartzeko izan ziren. Eta % 70,97 beste traba batzuk kentzeko jardunetarako; esate baterako, igogailuaren ibiltartea luzatzeko, eskailera-igogailuak, arrapalak eta abar jartzeko.

1.200 eurotik 16.000era arteko laguntzak barruti guztietan banatu ziren; gehiago, jakina, igogailurik gabeko etxebizitza-erakin gehiago dauden aldeetan. Hortaz, jarduketa gehien **Abando, Deustu, Errekalde, Begoña eta Uribarriko** barrutietan egin ziren.

Beste alde batetik, **SURBISA** udal sozietatearen ardurakoa da gunehaueko hiri-birgaikuntza: Zazpi Kaleak, Bilbo Zaharra, Zorrotzaurre, Trenbideko Langileen auzoa, Olabeaga, Gurutze auzoa, Iralabarri, Irala zaharra eta Zazpilanda. SURBISAk, iaz, **arkitekturazko oztopoak kentzeko 25 jardun** lagundu zituen diruz, **guztira 1,6 euro ipiniz inbertso pribatu gisa**. Zenbateko horren % 35 lagundu zen diruz, 497.000 euroko zenbateko batekin —250.000 euro, Surbisak, eta 247.000 euro Eusko Jaurlaritzak—, eta **217 etxebizitza** gertatu ziren onuradun.

Egikune horiek, nagusiki, hemen gauzatu ziren: Zazpi Kaleetan (8), Bilbo Zaharrean (12), Zorrotzaurren (1), Olabeagan (2), Iralan (3). Horietatik, 20 igogailuak ipintzeko izan dira; 7, etxebizitzetan irisgarritasun-obretarako; eta 1, irisgarritasun-aurreproiektuetarako.

AHOLKULARITZAKO UDAL ZERBITZUA

Bilboko Udalak badu etxebizitza-erakinetan irisgarritasuna hobetzeko informazioa emateko zerbitzua. Hirigintza Plangintzako Zuzendaritzan ematen da, eta, kontsultarik egin nahi izanez gero, **aldez aurretik eskatu behar da hitzordua, 94 420 43 07 telefonoan, urbanismo@bilbao.eus helbide elektronikoan edo Udalaren www.bilbao.eus webgunean**, "Zure Udalak entzuten dizu" atalean. Behin eskaera erregistratutakoan, zerbitzuko langileek interesdunarengana joko dute, behar den aholkularitza ematearren.

Zerbitzu horretan sarrien egiten diren galderak, hauen inguruan izaten dira:

- Jabeen erkidegoetan aurretiaz onartu behar dituzten akordioak.
- Irisgarritasun unibertsala lortzeko aukerak.
- Obra-lizentziak eskuratzeko administrazio izapideak, ondasun pribatuak edo espazio publikoak okupatzeko beharrezakoa, eta beste udal sail batzuekiko solaskidetza.
- Eskura daitezkeen laguntza ekonomikoak.

2017an abian jarri zenetik, **zerbitzuak 375 erkidegori eman die aholkularitza**.

EL AYUNTAMIENTO DE BILBAO PRESENTA LA CONVOCATORIA DE SUBVENCIONES DESTINADAS A LA SUPRESIÓN DE BARRERAS ARQUITECTÓNICAS Y LA INSTALACIÓN DE ASCENSORES EN EDIFICIOS RESIDENCIALES

- La convocatoria de este año incluye una cuantía de 600.000 euros en ayudas para la instalación de ascensores y supresión de barreras arquitectónicas en edificios residenciales, así como para la eliminación de barreras urbanísticas exteriores en espacios de titularidad privada.
- También se concederán 75.000 euros para las obras de reparación de elementos estructurales asociados a edificios residenciales.
- Importes que podrían incrementarse si fuera necesario, a la vista de las solicitudes que se presenten.
- La convocatoria de este año presenta novedades con un aumento en las cuantías de los importes subvencionables.
- El año pasado, el Área de Obras, Planificación Urbana y Proyectos Estratégicos subvencionó 93 actuaciones en toda la Villa, por un importe total de 590.888,09 euros, un 6,76% más que el año anterior. Con estas actuaciones se beneficiaron de estas ayudas 1.882 viviendas.
- Por otro lado, la Sociedad Municipal Surbisa, que se encarga de la rehabilitación urbana en las zonas del Casco Viejo, Bilbao La Vieja, Barrio de los Ferroviarios, Olabeaga, Barrio de La Cruz, Irala-áreas degradadas e Irala histórico, y Zazpilanda, subvencionó el año pasado 25 actuaciones relacionadas con la supresión de barreras arquitectónicas por un importe de 250.000 euros.
- En total, el año pasado en el ámbito municipal se realizaron 118 actuaciones en materia de accesibilidad en edificios residenciales, por un importe de 840.888,09 euros y que beneficiaron a 2.099 viviendas.

(Bilbao, a 14 de marzo de 2022).- El Ayuntamiento de Bilbao, a través del Área de Obras, Planificación Urbana y Proyectos Estratégicos, pone en marcha un año más la convocatoria de subvenciones para la supresión de barreras arquitectónicas en edificios de viviendas para 2022. Esta ayuda está orientada a mejorar la accesibilidad en los edificios residenciales y este año presenta algunas novedades en las cuantías de los importes subvencionables.

La cuantía destinada a este programa es de 600.000 euros para instalar ascensores y otros elementos de mejora de la accesibilidad para eliminar barreras arquitectónicas en las viviendas. También se concederá 75.000 euros para las obras de reparación de elementos estructurales asociados a edificios residenciales.

Estos importes podrían incrementarse, si fuera necesario, a la vista de las solicitudes que se presenten a lo largo del ejercicio.

Como años anteriores, esta convocatoria tiene por objeto **financiar una parte de la ejecución de las obras de supresión de barreras arquitectónicas** que afecten a edificios de uso residencial, en sus elementos comunes situados en el interior del edificio, obstáculos exteriores (como peldaños o escalones) de acceso inmediato al propio portal y para la instalación de ascensor cuando carezca del mismo.

Además, financia la ejecución de obras de reforma de **urbanizaciones exteriores** existentes de titularidad privada, ya sean de uso público o privado, que se encuentren en entornos urbanísticos de edificaciones residenciales, y siempre que impliquen la supresión de barreras urbanísticas.

Desde 1998, el Ayuntamiento de Bilbao ha impulsado distintos programas de ayudas para la eliminación de barreras arquitectónicas en edificios particulares, con el objetivo de garantizar la accesibilidad de todas las personas a sus viviendas.

REQUISITOS PARA ACCEDER A LA SUBVENCIÓN EN 2022

Los edificios residenciales susceptibles de obtener ayudas económicas para la supresión de barreras arquitectónicas deben cumplir los **requisitos** siguientes:

- Que **el uso principal** del inmueble sea **residencial**.
- En caso de existir en el **inmueble usos no residenciales, el porcentaje de los mismos no podrá ser superior al 50%** de la superficie total construida del edificio, excluidas las plantas bajas y los sótanos, en su caso.
- Que tenga una **antigüedad igual o superior a diez años**.
- La altura total del edificio será **como mínimo de cuatro plantas**, incluida la baja.
- **Informe de Inspección Técnica de Edificios** siempre que se trate de un edificio con una antigüedad superior a 50 años, y en todo caso independientemente de la antigüedad del edificio cuando la actuación consista en la **instalación de ascensor**.

Asimismo, **se reconoce la especificidad del barrio de Otxarkoaga**, como consecuencia de las circunstancias socioeconómicas de su población y del mayor coste de las obras, al realizarse generalmente la instalación de los ascensores por el exterior de los edificios, por lo que **se mantiene la ayuda del 20% del coste real de la obra, con un límite máximo de 20.000 euros** –hasta ahora este límite se situaba en 16.000 euros–.

Quedan excluidos de esta convocatoria los edificios pertenecientes al ámbito de actuación de Surbisa (Casco Viejo, Bilbao La Vieja, Barrio de los Ferroviarios, Olabeaga, Barrio La Cruz, Zazpilanda, Iralabarri e Irala histórico) **que disponen de un sistema específico de ayudas**. Y tampoco se concederán ayudas cuando se trate de viviendas unifamiliares o bifamiliares, aisladas o adosadas.

Las comunidades y personas propietarias interesadas en acceder a estas ayudas pueden presentar sus solicitudes **antes del día 14 de noviembre de 2022**. Quedan incluidas en la

convocatoria las solicitudes presentadas con anterioridad que estuvieren pendientes de resolución.

En relación a las ayudas municipales que el Ayuntamiento concede hay que tener en cuenta varias **consideraciones**:

La cuantía queda fijada en el **10% del coste real de la obra**:

- Para la instalación de ascensor. Hasta 20.000 euros si se consigue un recorrido sin escalones desde la calle a cada una de las viviendas –hasta ahora este límite se situaba en 16.000 euros–.
- Para ampliar el recorrido del ascensor, hasta 8.400 euros, antes 7.000 euro
- Para instalar plataformas elevadoras, rampas de acceso en el portal, etc., hasta 4.200 euros, antes 3.500 euros.
- Para redacción de un anteproyecto de instalación de ascensor que afecte a varios portales, hasta 1.800 euros, antes 1.500 euros.

Cuando se trate de reforma de urbanizaciones exteriores existentes de titularidad privada:

- Instalación de ascensor: 10% del coste, máximo 12.000 euros, antes 10.000.
- Otras intervenciones para eliminar barreras: 20% del coste, máximo 6.000 euros, antes 5.000 euros.

Estas ayudas son **compatibles las que concede el Gobierno Vasco y otras administraciones o entidades**.

BALANCE DE AYUDAS ELIMINACIÓN BARRERAS ARQUITECTÓNICAS EN 2021

El Área de Obras, Planificación Urbana y Proyectos Estratégicos del Ayuntamiento de Bilbao subvencionó en 2021 un total de **93 actuaciones**, por un importe total de **590.888,09 euros (un 6,76% más que en 2020)**. Cabe destacar que se otorgaron todas las subvenciones solicitadas y que cumplían la normativa.

De esas 93 actuaciones:

- 19 tuvieron como objetivo la instalación de ascensor logrando una accesibilidad total.
- 7 fueron para la instalación del ascensor.
- 1 para reforma de urbanizaciones.
- 1 actuación tuvo lugar en el barrio de Otxarkoaga para instalación de ascensor y redacción de anteproyecto de obras.
- 28 se destinaron a la ampliación del recorrido del ascensor.
- Y otras 37 fueron actuaciones relacionadas con la accesibilidad (salvaescaleras, rampas...).

Estas ayudas beneficiaron a 1.882 viviendas. De ellas el 29,03 % fueron para la instalación de ascensor en edificios que carecían del él. Y el 70,97 % para otras actuaciones de supresión de barreras como por ejemplo, la ampliación del recorrido del ascensor, salvaescaleras, rampas, etc...

Las subvenciones, de **entre 1.200 y 16.000 euros** cada una, se distribuyeron por todos los distritos de la Villa, con mayor incidencia en las zonas de mayor concentración de edificios residenciales sin ascensor, siendo **Abando, Deusto, Errekalde, Begoña y Uribarri, los distritos donde se han realizado más actuaciones.**

Por otro lado, la Sociedad Municipal **SURBISA**, que se encarga de la rehabilitación urbana en las zonas del Casco Viejo, Bilbao La Vieja, Barrio de los Ferroviarios, Zorrotzaurre, Olabeaga, Barrio La Cruz, Iralabarri, Irala histórico y Zazpilanda, subvencionó el año pasado **25 actuaciones relacionadas con la supresión de barreras arquitectónicas que alcanzaron 1,6 millones de euros de inversión privada.** Esta cuantía fue subvencionada en un 35 % por un importe de 497.000 euros -250.000 euros de Surbisa y 247.000 euros de Gobierno Vasco-, beneficiándose **217 viviendas.**

Estas actuaciones se llevaron a cabo principalmente en Casco Viejo (8), en Bilbao La Vieja (12), en Zorrotzaurre (1), en Olabeaga (2) y en Irala (3). De ellas, 17 han sido para instalación de ascensores, 7 para obras de accesibilidad en vivienda y 1 para Anteproyectos de Accesibilidad.

SERVICIO MUNICIPAL DE ASESORAMIENTO

El Ayuntamiento de Bilbao tiene un servicio de información municipal sobre mejoras de accesibilidad en edificios residenciales. Se presta en la Dirección de Planificación Urbana; y, para realizar cualquier consulta se debe solicitar **cita previa por teléfono 94 420 43 07, en la dirección de correo electrónico urbanismo@bilbao.eus o en la web municipal www.bilbao.eus** en el apartado 'Tu Ayuntamiento te escucha'. Registrada la solicitud, el personal del servicio se pondrá en contacto con la persona interesada a fin de prestar el asesoramiento requerido.

Las consultas más frecuentes que atiende este servicio, giran en torno a:

- Los acuerdos que deben adoptar previamente las comunidades.
- Las alternativas para alcanzar una accesibilidad universal.
- Los trámites administrativos sobre obtención de licencia de obras, necesidad de ocupar bienes privados o espacios públicos, así como la interlocución con otros departamentos municipales.
- Las ayudas económicas disponibles.

Desde su puesta en marcha, en marzo de 2017, **el servicio ha prestado asesoramiento a 375 comunidades.**